



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

## **Foru Aldundiak "indartu" egingo ditu doping-aren kontrako kontrolak idi probetan**

Bilbon, 2014ko urriaren 23an.

Irene Pardo Nekazaritzako foru diputatu andreak, hemendik aurrera bere sailak, idi probetan egiten diran doping-aren kontrako kontrolak "indartu" egingo dituala jakinarazo dau Batzar Nagusietako Nekazaritzako Batzordean.

Aldundiko arduraduna gaur goizean agertu da Bizkaiko kamanan, Bizkaiko Talde Popularrak (PP) eskatuta, abuztuan Erandion izandako idi probetan idi bi hiltzearen inguruko gertakarien barri emoteko eta gertakari horrek animalien jaubearentzat izango dituan ondorioak azaltzeko, egin beharreko nekropsia egin ostean, idiak "anfetaminakaz dopauta egozala" frogatu eta gero.

Pardok Batzarretako taldeei jakinarazo deutse Aldundiak hasi beharreko zehapen espedienteak hasi dauela, indarrean dagoan legediaren kontrako gertakariak diralako. Animalien jaubeari "3 arau hauste ezarten jakoz, horreetako bi oso larriak". Lehenengoarengaitik, idiei anfetaminak emoteagaitik, "animalia bakotxarengaitik 15.000 euro arteko isuna" ezarten jako. "Laguntzea ez emoteagaitik" beste "1.500 euroko" isuna jarten jako. Horrez gain, bere abeltzaintza ustiapena aldi baterako ixteko "kautelazko" neurria be hartu da, eta abagune horreek guztiak Herri Kiroletako Bizkaiko eta Euskadiko federazioei jakinarazo jakez, kirol araudiagaz "bat etorritz" jokatu daien.

Animaliaren ongizatea Aldundiarentzat "interes berezia" daukan eremua dala kontuan izanda, Nekazaritzako sailak "aitatutako kontrol programagaz aurrera jarraitzeko eta ahal dan neurrian indartzeko asmoa dauka", esan dau Pardok. Gertakari "negargarri" horreek saihestu ahal izateko eta kirol jardunbide horretan doping-a desagertuarazotea lortzeko indarrean jarriko diran neurri "garrantzitsuenen" artean, Aldundiko arduradunak honeek azpimarratu ditu: Herri Kiroletako Bizkaiko federazioagaz alkarlanean aritzea, kontrolagaz erlazioautako programea hobetzeko eta animalien ongizatearen arloan prestakuntzea eskintzeko; kontrol programea indartzea, "1997tik, milioi erdi euro inguruko gastua eskatu daben ia 900 kontrol egin," eta "Bizkaian 60 zehapen espediente" zabaldu diran arren.

Horrez gain, Aldundiak indartu egingo dau autortutako laborategiakaz daukan lankidetzeari, debekautako gaien kontrako borrokan aurrera egin ahal izateko. Doping-aren kontrako kontrolak "ez dira merkeak, baina lehentasuna dira, eta holan jarraituko dabe hemendik aurrera be", ziurtatu dau Pardok.

Animalien heriotzaren aurrean atsekabea azaldu ostean, Batzarretako talde guztiek salatu egin dabe idi probetan eta bestelakoetan egiten dan doping-a, eta horreen jatorria kirol apustuetan eta kirol diziplina horrek mobiduten dauen diruan dagoala esan dabe. "Tentazinoa hor dago", esan dau Arturo Aldecoak (PP), eta adierazo dauenez, isunak "konpentsau" egin daitezke apustu horreetatik sortutako irabaziakaz. "Inpunidade sentsazinoa dago", gehitu dau EH Bilduko Asier Vegak, eta "gardentasun eta kontrol gehiago" eskatu dau, eta baita zigorrak gaur egungoak baino handiagoak izatea be.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

EAJ-PNV taldearen eretxiz, doping kasu horreek “gure herri kiroleko baten irudia kaltetzen dabe”. “Penagarria da pertsona batzuk diruaren truke hori egiteko gai izatea”, esan dau Zuriñe Argatxak, penauta. Halanda be, “errealidade nagusia ez dala hori” uste dau, PP-ko ordezkariak defendidutakoaren kontra, haren ustez “beharbada hautematen dana baino doping gehiago egon daitekkelako”. Batzordekide jeltzalearen eretxiz, Erandioko kasuak, kontrolak badagozala, eta administrazioen artean modu koordinatuan jarduten dala erakusten dau.

#### ORKATZ BATEN HERIOTZEA ARRIGORRIAGAKO HILERRIAN

Horrez gain, Pardok, PSE-EE taldearen eskariari erantzunez, kontrolautako batidaren bitartez Arrigorriagako hilerrian, maiatzaren bukaeran, gertatutako orkatz baten heriotzea azaldu dau. Animalien eskubideen aldeko hainbat alkartek gertakari hori salatu eben, “leku publikoan su armak” erabilteagaitik.

Foru diputatu andreak adierazo dauenez, animalia Base Gorriko teknikariek hil eben, egoera balorau ostean, eta legetasunaren barruan. Kontuan izan behar da Foru arautegiak ehiza nagusiko espezie hori kontroletako neurriak baimentzen dituala “nekazaritzan, abeltzaintzan edo basoetan kalteak gertatzen diranean”, urteko edozein garaitan.

Pardok azaldu dauenez, animalia Arrigorriagako hilerrian egoan, urten ezinda. Hilerriaren sarrerako atea AP-68 autopistatik “100 metro baino gitxiagotara” dago, eta animaliak stres sintomak eukazan, gau osoa nekropolian igaro ostean, bertatik urten ezinda. Aukera “bideragarriena” animalia hiltea izan zan, foru teknikariek animalia egoera ikusi ostean, eta autopistako gidarientzat arriskua sortu eikeala kontuan izanda.

#### EZ DA ONARTU BASO AUTOKTONOEN ATLAS KARTOGRAFIKOA EGITEKO PROPOSAMENA

Batzordeak ez dau onartu PP taldeak aurkeztutako arauz besteko proposamena. Proposamen horretan eskaerea egiten zan, Batzar Nagusiek agindua emon deioen Foru Aldundiari “urte birik behin, baso masa autoktonoen egoerari buruzko inbentarioa eta atlas kartografikoa egin eta kaleratu daian”, Bizkaiko udalerrietan “bertan behera ixte, mozketa eta desagerpen egoerak” saihesteko.

Sozialistek zuzenketa-eske bat aurkeztu dabe, popularren ekimenean bigarren puntu bat sartzeko, baso masa autoktono horretan “sortzapen gunea” ezarteko eskatuz, “Bertako arbolen hedapena ez kaltetzeko”. PP taldearen ekimena, zuzenketa-eskea sartu eta gero, ez da onartu, kontrako 9 boto (EAJ-PNV eta EH Bildu) eta aldeko 4 (PP eta PSE-EE) jaso ditualako.

EAJ-PNV eta EH Bilduko ordezkarien eretxiz ekimen hori ez da “bideragarria”, urte birik behin zuhaitz autoktonoen inbentarioa eguneratzearen kostua kontuan izanda. Horretarako, basoetako guardak “behar hori baino ezin izango leukie egin”, esan dau EH Bilduko Asier Vegak. Batzarretako talde biek adierazo dabe badagoala Eusko Jaurlaritzak Administrazio zentralagaz batera egiten dauen basoei buruzko inbentarioa, eta inbentario hori bost urtez behin barriztetan dala.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## **La Diputación "reforzará" los controles antidopaje en las pruebas de arrastre de piedra con bueyes**

En Bilbao, a 23 de octubre de 2014.

La diputada foral de Agricultura, Irene Pardo, ha informado a la Comisión de Agricultura y Medio Ambiente de las Juntas Generales que su departamento "reforzará" en el futuro los controles antidopaje en las "idi proba" de arrastre de piedra con bueyes.

La responsable foral ha comparecido esta mañana en la Cámara vizcaína, a petición del grupo Popular Vizcaíno (PP), para relatar los hechos que rodearon la muerte de dos bueyes en plena prueba de arrastre celebrada en agosto en la localidad de Erandio, y para informar de las consecuencias que tendrá para el titular de los animales tras demostrarse, a través de la correspondiente necropsia, que los bueyes habían sido "dopados con anfetaminas".

Pardo ha comunicado a los grupos junteros que la Diputación ha iniciado el correspondiente expediente sancionador por unos hechos que son contrarios a la legislación vigente. Al titular de los animales se le imponen "3 infracciones, dos de ellas muy graves". La primera, por suministrar anfetaminas a los bueyes, se le impone una multa de "hasta 15.000 euros por animal". "Por no prestar asistencia", se le sanciona con otros "1.500 euros". Igualmente, se ha tomado la medida "cautelara" de clausurar temporalmente la explotación ganadera, así como poner en conocimiento de las circunstancias a las federaciones vizcaína y vasca de deporte rural para que actúen "en consecuencia" a la reglamentación deportiva.

Considerando que el bienestar animal es un ámbito de "especial interés" para la Diputación, el departamento de Agricultura "tiene la intención de continuar y reforzar en la medida de lo posible dicho programa de control", ha dicho Pardo. Entre las medidas "más importantes" para evitar estos hechos "lamentables" e intentar que desaparezca el dopaje de esta práctica deportiva, la responsable foral ha destacado: la colaboración con la federación vizcaína de deporte rural para mejorar aspectos de control y formación en materia de bienestar animal; o el refuerzo del programa de control "a pesar de que desde el año 1997 se han realizado casi 900 controles con un gasto cercano al medio millón de euros" y se han abierto "unos 60 expedientes sancionadores en Bizkaia".

Además, la Diputación reforzará también la colaboración con los laboratorios reconocidos para avanzar en la lucha contra el uso de sustancias prohibidas, pese a que los controles antidopaje "no son baratos, pero es una prioridad y lo va a seguir siendo en el futuro", ha asegurado Pardo

Tras lamentar la muerte de los animales, todos los grupos de la Cámara han denunciado la práctica del dopaje en las pruebas de arrastre cuyo origen lo han situado en las apuestas deportivas y en la cantidad de dinero que mueve esta disciplina deportiva. "La tentación está presente" ha dicho Arturo Aldecoa (PP) que ha apuntado que las multas pueden "compensarse" con las ganancias derivadas de estas apuestas. "Hay una sensación de impunidad", ha añadido Asier Vega de EH Bildu, que ha pedido "más transparencia" y "más controles" y que las sanciones sean de cuantía superior a las actuales.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Desde el PNV creen que estos casos de dopaje “menoscaban la imagen de uno de nuestros deportes”. “Es lamentable que algunos sean capaces de hacer esto por dinero”, ha lamentado Zuriñe Argatxa. Pese a esto, considera que “la realidad mayoritaria no es esa”, lo contrario a lo defendido por el representante del PP que considera que “puede que haya más dopaje del que se detecta”. La apoderada jeltzale cree que el caso de Erandio demuestra que los controles existen y que se actúa de manera coordinada entre administraciones.

#### MUERTE DE UN CORZO EN EL CEMENTERIO DE ARRIGORRIAGA

Asimismo, Pardo, a petición del PSE-EE, ha explicado la muerte por batida controlada de un corzo en el cementerio de Arrigorriaga, a finales del mes mayo, hecho que había sido denunciado por varias asociaciones en defensa de los animales por la utilización de “armas de fuego en un lugar público”.

La diputada foral ha informado que el animal fue abatido por técnicos de Base Gorria tras valorar la situación y dentro de la legalidad, ya que la normativa foral autoriza medidas de control para esta especie cinegética de caza mayor “cuando se produzcan daños para la agricultura, la ganadería o los bosques”, en cualquier época del año.

Pardo ha explicado que el animal se encontraba encerrado en el cementerio de Arrigorriaga, cuya entrada se encuentra “a menos de 100 metros” de la AP 68 y con síntomas de estrés tras pasar toda una noche en la necrópolis sin poder salir. La opción “más viable” era el abatimiento tras comprobar los técnicos forales el estado del animal y el hecho de que pudiera poner en peligro a los conductores de la autopista.

#### RECHAZO A LA CREACIÓN DE UN ATLAS CARTOGRÁFICO DE BOSQUES AUTÓCTONOS

La comisión ha rechazado una proposición no de norma presentada por el PP para que las Juntas Generales instasen a la Diputación Foral “a realizar y hacer pública cada dos años, un inventario y atlas cartográfico del estado de las masas forestales autóctonas” para evitar “situaciones de abandono, tala y desaparición” en los municipios vizcaínos.

Los socialistas habían presentado una enmienda para que se incluyera un segundo punto en la iniciativa popular y reclamar el establecimiento de “una zona de servidumbre” en estas masas forestales autóctonas, “a fin de no perjudicar o dañar la posible proliferación de arbolado autóctono”. La iniciativa del PP, con la enmienda incorporada, ha sido desestimada por 9 votos en contra (PNV y EH Bildu) y 4 votos a favor (PP y PSE-EE).

Los representantes de PNV y EH Bildu han tachado de “inviabile” la iniciativa por el coste que supondría actualizar un inventario del arbolado autóctono cada dos años. Supondría que los guardas forestales “se limitarían a hacer este trabajo”, ha reprochado Asier Vega, de EH Bildu. Ambos grupos junteros se han referido a la existencia de un inventario forestal que realiza ya el Gobierno Vasco en colaboración con la Administración central, que se renueva de manera quinquenal.